

## JUAN ANTONIO MOGELEN CRISTAUBAREN ICASBIDEA EDO DOCTRINA CRISTIANA LIBURUAREN AURKEZPENA

*Durangon, 1988-VI-11 eta Bilbon, 1988-VII-1*

*Fr. Luis Villasante*

Jaun-Andreak:

Euskaltzaindia une honetan euskararen gerorako, bai epe laburrean eta bai epe luzean ere, beharrezko diren tresnak prestatzen ari da. Hiztegi kontuan OEHren argitalpena martxan dago.

Lehen liburukia behintzat atera da eta hurrengo biak ere prestatu daude. Obra galant hau oso baliotsua izango da kontsultarako, euskal hitzen tradizioa ezagutzeko, alegia.

Beste obra behar-beharrezkoa da EGLU (*Euskal Gramatika. Lehen Urratsak*). Bigarren liburukia ateraberria dugu eta oraintxe egin da hemen beronen aurkezpena.

Baina Euskaltzaindiak uste du hizkuntza batentzat garrantzi handikoa dela, orobat, idazle zaharren edizio kritikoak egitea. Eta horretarako sortu zuen “Euskararen Lekukoak” deitzen den liburu-bilduma.

Igaz agertu da bilduma honen 14. liburukia. Neronek prestatu dut beronen edizioa. Idazlea edo egilea ez da nornahi, Juan Antonio Mogel, bizkaiera literarioaren aitatzat jotzen duguna baizik. Liburu hau ere bizkaieraz dago, noski, eta gaur arte argitaragabe egon da.

Konta dezadan laburkiro beronen historia —nik ezagutzen dudana, jakina.

1963. urtean hil zen Oñatiko Bidaurretan Aita Aingeru Madariaga, bermeotarra. Euskaltzalea zen, Ameriketara etab. ibilia. Arantzazuko Aita Guardianak —Aita Pedro Aranguren— esan zidan: “Zoaz eta ikus ezazu ea zerbait baliozkorik utzi ote duen”. Eta bai, haren gelan aurkitu eta jaso nuen eskuz eta euskaraz idatzitako kodize bat: “Cristaubaren Icasbidea edo Doctrina Cristiana”. Ez du jartzen egilearen izenik. Aurreko orrialde batean ohar hau dakar: “Este libro recogí en Elgoibar. Debió pertenecer a los PP. Franciscanos de aquel convento. Le entregué al P. Angel de Madariaga OFM. Fr. Andrés de Ocerin Jauregui OFM 1922”.

Mendizabalen esklaustroziora arte frantziskotarren komentua egon zen Elgoibarren, eta, dirudienez, hangoa zen kodize hau. Egilea, berriz, nor izan zitekeen, nahiz eta neure susmoak izan, urte askotan ziur jakir: gabe egon naiz.

Neronek utzirik, Mitxelena zenak ere eduki zuen liburua denboraldi batean eta fitxak hartu zituen bertatik. OEHN autoridade bezala sartua dago liburu hau izen honekin: "Catecismo de Elgóibar". Ez, noski, egilea elgoibartarra zelako edo dotrina hau Elgoibarren inoiz, nik dakidala, irakatsi delako, kodizea bertan jaso zelako baizik.

Geroago jakin nuen Derion bazela obra honen beste ale edo kodize bat. Ikusi nuen eta ohartu nintzen bazirela batetik bestera aldakuntza batzuk. Gainera, Deriokoan espresuki esaten da nor den egilea: Juan Antonio Mogel ta Urquiza. Elgoibarkoak, ostera, badu zerbait, besteak ez duena, hots, hitzaurre bat erdaraz, guztiz ernagarria, eta antza denez bukatu gabe dagoena.

Hitzaurre horretan esaten da katixima hau Baionako Apezpiku beneragarri batek egindakotik hartua dela, nahiz eta ez hitzez-hitz; baina ez du Apezpiku horren izena esaten. Hasi nintzen Baionako katixima horren aztarnen bila eta jakin ahal izan nuen zein zen: Lavieuxville, Baionan 1733. urtean *Bayonaco Diocesaco bi-garren Catichima* atera zuena.

Lapurdikoa Bizkaikoaren iturri izanik, pentsatu nuen bidezkoa zela lapurdierazkoa lehenik ateratzea, eta hala atera nuen "Lekukoak" bilduman, 1985ean. Azkenik, honi heldu zitzaion aldia, eta hala agertu dugu orain bilduma berean.

Lavieuxvillegandik katixima honek daukan menpetasuna, egia esan, ez da handiegia: ez, behintzat, lehen kolpean usteko genuen bezainbestekoa. Mogel gehienetan bere bidetik dabil, bere begien aurrean daukan jendearentzat zuzendu du bere liburua, hots, baserri-giroan bizi zen Bizkaiko jendearentzat. Esan behar da, gainera, Lavieuxvilleren dotrinak 4 parte dituela; honek 3 bakarrik: Kredoa, Aginduak, Sakramentuak. Lavieuxvillek badu 4. parte bat urteko festaburu eta Liturgi-aldiei eskainia, eta hori Mogelenean erabat falta da.

Beste aldetik, berriz, hau ere esan behar dela uste dut. Kristau dotrina edo katezismoak aipatzean, umeentzat egindako liburutxoak etortzen zaizkigu gogora, eta ez da hau gure kasua. Mogelen liburu hau pertsona nagustuentzat egina dirudi. Kristau eskola aski zabala eta sakona eman nahi die horiei, eta eguneroko bizitzan gertatzen ziren gertaldi eta kasu askoren gainean argitasuna eman nahi du, kristauak nola joka behar duen jakin dezan. Galde-erantzunetan dago egina liburua, hori bai, baina askotan erantzunak oso luzeak dira: irakaslea mintzo da han, eta ez ikaslea. Egia da kristau bizitzari buruz ematen duen ikuskera pixka bat hitsa dela, goibela, baina horretan garai hartako teologiaren menpeko dagoela esango nuke.

Guk argitalpena egitean Elgoibarko kodizea hartu dugu oinarri, baina aurreko Sarrerari eraskin kritiko bat jarri diogu, eta bertan Derio eta Elgoibarko kodizeen artean dauden aldaeren kontu ematen da. Atzekaldean, berriz, Hiztegi bat jarri zaio edizioari, liburuan agertzen diren hitz eta esaera franko jasotzen duen Hiztegia.

Zoritxarrez, eta hau uste dut dela euskal edizioetan maiz gertatzen den akatsa: zenbait errata itzuri dira, eta ez behin eta berriz inprentako frogak zuzendu ez zirelako. Nik ez dakit zer gertatzen den gure inprenteruekin, baina lotsagarria ere bada lan bat okerrik gabe gure hizkuntzan atera ezina. Dena dela, liburua inprentatu ondoren eta eskuz idatzizko kodizeaz alderatzen hasi eta

[JUAN ANTONIO MOGUEL TA URQUIZA]

CRISTAUBAREN ICASBIDEA EDO  
DOCTRINA CRISTIANA

Edizio kritikoa  
Fr. Luis Villasantek  
prestatua

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/EUSKALTZAINDIA  
BILBAO 1987

hutsak bazirela konturatu nintzenez, esan nion gure argitalpenen arduradunari: “Zatoz Arantzazura, eta nik esku iskribua eta zuk ale inprimatua eskuetan dugularik, pasada osoa eman behar zaio liburuari ‘Fe de erratas’ bat bertan ipintzeko”. Hala egin dugu eta horregatik erantsi behar izan zaio orri bat gainetik.

Esan behar da, bestalde, ez ortografia eta ez ezer aldatu gabe agertu dugula liburua. “Editio princeps” edo aurrenengoa delarik, hala behar zuen.

Erdal hitzaurrea eta bai Mogelen beste idazki batzuk ikusirik, laster antz ematen duzu liburu hau egitean zer asmo edo xede zuen —erlijiozko xedeaz gainera, noski—. Berak bizkaitar eskolatu edo landuei euskara kultur tresna edo ibilgailu izateko gauza dela erakutsi nahi die. Badaki eta, bizkaitarrek —eskolatuek behintzat— euskara hizkuntza txartzat jotzen zutela, gauza ez dena, eta ideia hori burutik kendu nahi die.

Eta bizkaieraz egiten du bere liburua. Dakizuten bezala, bizkaiera literarioaren sortzaile edo aita dugu Juan Antonio Mogel. Bidea urratu behar izan zuen. Ez zeukan bere aurretik arnasa luze edo handiko lanik prosaz euskalki horretan egindakorik. Orduan Markina aldeko euskara bizia hartuko du oinarri.

Hasierak beti izaten dira zailak eta hori nabari zaio Mogeli ere lan honetan: ahozko hizkera bizia hizkuntza landua bihurtu nahian ari da eta baditu bere zalantzak eta haztamuka ibiltzeak. Lapurdierazko euskalki literarioa ordurako finkatua eta trebatua zegoen, baina bizkaiera ez. Horregatik ere liburu hau gutzitx ohargarria dela uste dut.

Norbaitek galdetuko du agian: “Zergatik ez zen argitaratu bere garaian?” Ez dakit zuzen, baina arrazoi batzuk aipa daitezke oker egoteko arrisku handi gabe: 1. Oso zaila zen argitaratzeko baimena lortzea, batez ere liburu euskaraz izanik; 2. Egileak ez zuen edizioa pagatzeko dirurik izango. Mogel bertute handiko apaiza zen; zeukan gutzia pobreei ematen zien; Frantziako Iraultzatik ihesi zetozen apaizak etxean hartzen zituen; hil zenean ez omen zeukan ezer. 3. Hil ere ustegabeen hil zen; izurriak jotako gizon batzuei hiltzen laguntzen zebilela, bera ere gaitzaz kutsatua hil zen; hiltzean 59 urteko adina zuen. Eginak zituen lan argitaragabeak umezurtz eta sakabanatuak gelditu ziren. Segur aski, bere iloba Juan Josek hartuko zuen horien kargua, baina hark argitaratzeko eragozpen berberekin aurkituko zen. Gero badakigu zelako gerrak egon ziren XIX. mendean.

*Peru Abarca*, egilea hil eta 80 urte geroago agertu zen hemen Durangon. Eta oraingo hau 180 urte geroago agertzen da Bizkaiko Diputazioaren laguntzari esker. Nik uste dut *Peru Abarca* eta oraingo hau anaia bixkiak direla alde askotatik. Gai desberdina darabilte, hori bai, baina gainerakoan arrangura edo kezka berberetik sortuak dira biak: euskara gai dela, gauza dela Bizkaiko jende ikasiari agertu edo egiaztatu nahi diote biek.

Liburuaren Sarreran xehetasun edo zertzelada gehiago jarri dugu, baina aurkezpen honetarako esandakoaz aski izango dela derizot.

Nahi izanez gero, erdal hitzaurreko pasarte batzuk irakur daitezke. Orduko giroa ezagutzeko ez du parerik hitzaurre honek.

Esan behar da, azkenik, liburu hauek aztergai izan daitezten ateratzen direla. Azterketok egiteko daude oraindik. Egin daitezenez, orduan izango da beroien balio eta emaitzak neurtzeko garaia.